Atraka. —Bai, jauna, bai; beriala etoñiko da. Anón! Anón !!

Anton. —Nor da?

(Anón patiñako ateak azaltzen da; uste gabeak Atraka jozen du ta basua botatzen diyo.)

Biyak. —A !

Anton. —Katuentzako al ukana?

(Nagusiya ikusten du.)

—(Oi! Nagusiya !)

(Patiñara iges egiten du.)

Atraka. Iya ixuri ukana.

(Anón'en ondotik patiñara juanaz).

On Jeolimo (Ateik Anón'i ojuka.)

—Anón! Anón! Nora zuaz?

Anton. (Patiñak biurtuaz.)

—Nagusi jauna, barkatu beza, ez nuen ikusten ere.

On Jeolimo—Ordu bete ontan emen nago zure zai.

Anton. —Eta, ez al du nere andria ikusi?

On Jeolimo—Ez.

Anton. —Ez da bada ordu laurdenik ere alde egin duela... zerera juan da, zereko zerera.....

On Jeolimo—A, bai!

Anton. —Ez, jauna, ara ez, bestera. Azkena neurtu zan upe-leko sagarduen muestra eramatera..... Bestiakin aña denbora pasatzen badute, datoñen udabefiyan saltzeko moduban izango degu, jauna.

On Jeolimo—Presa eman biar zayote bada.

Anton. Nik uste det, jauna, presa baño, txanpon batzuek ematia obe.izango litzakela.

On Jeolimo—Ori ez da ordia ondo egiña.

Anton. —Groñ-groñ ere, ez zan ondo egiña bana, or ibiltzen zan kalei kale, bere konkoña bizkaifian zuela.

On Jeolimo—Begira, Anton: guri komeni zaigu lenbailen saltzia, ta al dan modurik onenian.

Anton. —Bai, jauna, bai. Al dan merkiena.

On Jeolimo—E! Neretzako modurik onena, al dan gaixtiyena da.

Anton. —Bañan, saltzeko modurik txafrena ere bai.

On Jeolimo—Edariya ona izan ezkerro, pixka bat gaixtixiago izan afen, azkar saltzen da.

Anton. —Nik ez det konprenditzen jauna; ontan andria baidago oitua.

On Jeolimo—Ori gauza efexa dezu.

Anton. —Bai jauna; upel ortatik ogeita amar karga ateratzia baño efexagua.

On Jeolimo—Zergatik, ordia?

Anton. —Ogeita amar kargik sartu ez dira ta, aterako ez diralako, jauna.

On Jeolimo—Aterako díra.

Anton. —Beoñi, bai, aterako litzake alakorik balitz; baña, nola nai du ez dan tokitik ateratzia? Sagardua upelian jayotzen dala uste al du bada? Upelian geyenaz ere *batayatu* egiten da, jauna.

On Jeolimo—Bañan, gizona, nola ari zera izketan? Upela neurtu beñiya bada.

— 11 —

Anton. — Oyek zer dakite? Zintakin upela neurtu? Nik, alare, galtzen neufiyak artzen ari ziraña uste nuen.

On Jeolimo — Neufirik xuxenena orixe da. Orain artekua saltza bat besterik ez da izan; eta ofela zuek kuartotxuak egin dituzute.

Anton. — Bai; guretzako beti saltxa, ta jakiya beofentzat.

On Jeolimo — Orain gauza askoz ere garbiyagua da.

Anton. — Xaltxik ere ez orain!

On Jeolimo — Alabaindikan ere, bakoitzak bere kontuak atera biar ditu.

Anton. — Nai dituen kontuak atera ahen, ez du ortik ogei ta amar kargik aterako.

On Jeolimo — Begira, nik ez det ofekin egitekorik. Zuek, saltzen, kontuz aritzen bazerate, gauza ondo aterako da. Iku-siko dezu.

Anton. — Nai du ezetz?

On Jeolimo — Ez; nik bayetz nai det.

Anton. — Ni kontu guztiyakin ariko naiz, eta ikusiko du zer gertatzen dan.

On Jeolimo — Ia, bada.

SEIGAREN IRUDIA.

Anñon, On Jeolimo ta Joxe Pipax.

Pipax. (Atzeko atetik sartuaz)

— Atrakatu, ta fondo eman biar degu ementxen.

On Jeolimo — Emen al zera alporja?

Pipax. — Ondo ta beofi, On Jeolimo? Ondo serbitzeko. Ba, jauna, bai.

On Jeolimo (Atzeko ate aldera juanaz.)

— Ja! ja! ja! Beti txoro, beti ofela.

Pipax. — Bijua ondotxo. Kontuz ibili e? itxaso gaixtua dago-ta.

On Jeolimo — Zu kontuz ibili, zu.... mariatu gabe.

Pipax. — E! Atuajia jakiñen gañian dago.

On Jeolimo — Ariyo, Anñon. Esanak esan. Ia xuxen ari ta zer ate-ratzen dan.

(*On Jeolimo atzetik juaten da.*)

— 12 —

Anton. —Ni nere iritzian nago jauna. Bijua ondotxo.

(*Antón baíkaren auéra juan eta exertzen da. Pipax alderatzentz zaio.*)

Pipax. —Kaxo Antón: zer gizon modu? Ekatzak baso bat sagardo, lo ez baldin baago.

Anton. —Lo niok.

Pipax. —Oi! Ez dek gero batere ezagun. Badiruik ametsetan abilela, bañan..... lotan, ez.

Anton. —Mutil, utzi nazak pakian asafe niok eta.

Pipax. —Aixkiratzen lana. Ni ez nak beñere asafetzen; ni beti umore onakin..... Orain ere, abiyadurik batere artu gabe..... edango nizkikek sei baso sagardo bata bestien ondoren.

Anton. —Edan obeto egingo dituk, bai, pagatu baño.

Pipax. —Begira zak bada. Neri ez zaak gustatzen zoñik iñon izaterik, eta ezta..... pagatzerik ere.

Anton. —Ori dek!

Pipax. —E! Txifíxtatu egin nak. Ez nikan ori esan nai.

Anton. —Nai ez dekala egiya esan dek.

Pipax. —Gizona, gaur baño pobriago izan gaituk bada. Dirua obeto zeukagu agiñeko miña baño. Atxuari atera zizkat zazpi kuarto, txiki bat ardo ta laurdeneko opila erosirik amaiketakua egiteko; ta, beste zazpi miña duro banitu, ez nkek ire inbiriyik izango.

Anton. —Aizak, i: ta sagardua zerekin pagatzeko asmua dek.

Pipax. —Gai ofetzàz gero itzegingo diagu.

Anton. —Ez diat emango.

Pipax. —Oñenbeste ez aiz fiyatzen?

Anton. —Ez, ez, ez! Ez diat emango.

(*Pipax'ek alde guzietara begiratzeu du, ta txoko batean makil koxkor bat ikusi, ta bere aíkein Antón'i juaten zaio.*)

Pipax. —To makila, ta, koxka egin agiyok, e? ta.....

Anton. —Ez nak ari! Makil ontan edo itxasoan egin, bat dek.

(*Pipax'ek makila luera botatzen du.*)

Pipax. —Pagatuko diat bada. Baso baten juan etoñiyagatik oñenbeste zalaparta. Ona ago i, nik bezela zazpi miña duro artzeko izateko.

Anton. —Norengandik?

Pipax. —Gobiernotik.

— 13 —

- Anton.* —Nola?
- Pipax.* —Sekulan ezer ez diat artu, ta artzeko nagolako.
- Anton.* —Lenbiziko artzen dekanian etoñi adi bada, ta orduan emango diat.
- Pipax.* —Gizona, pagatuko detala bein esan ezkero, ez al aiz fiyatzen?
- Anton.* —Ez nak fiyatzen, ez.
(Baso bal sagardo ematen diyo.)
- To. Bañan ez aiz gaur emendik aterako pagatu gabe.
- Pipax.* —*(Basua artuta.)*
 —Aterako gaituk!
- Anton.* —Zelaoriari deituko ziuat.
(Pipax'ek sagardua edan, kondua luñera bota, ta baso utsa Anton'i ematen dio.)

ZAZPIGAÑEN IRUDIA.

Anñon, Joxe Pipax eta Peñó Atraka.

- Atraka.* —*(Eskuko atetik (patiñatik) ateriaz.)*
 —Juan al da?
- Pipax.* —*(Pipa pixtuaz.)*
 —Ez; Joxe nak, legofez.
- Atraka.* —Legofez, itxasoz baño obeto izango ditut bai, zuen treñeroko jendiak.
- Pipax.* —Gure treñeruan bezelako jende lirañik ez dek kosta ontan guziyan, eta panpañoikeri gutxi atera biar dezute ba-ezpako afantazole zarpatzu oyek.
- Atraka.* —Ixilik ago. Zuen artekua izatia lotsatu biar dik eta.
- Pipax.* I egongo aiz ixilik, i.
- Atraka.* —Nai badet.
- Anton.* —Asi al zerate?
- Pipax.* —Askorik ez amar urte abetan.
- Anton.* —Bazekiat zer esaten detan.
- Atraka.* —Onek ez daki ordia zer esaten duen. Asto! Babo!! Lukainka!!!
- Pipax.* —Ala banitz jango nindukek.
- Atraka.* —Ez aiz ordia jateko ona.
- Anton.* —Ez dek bada txarfa edateko.

- Atraka.* —Oretarako, bai; ta tabernan zalaparta dariyola, bere gezuñezko aziyuak kontatuaz jendia engañatzeko. Itsasuan, itsasuan ezagutzen dek zein dan gizona.
- Pipax.* —Gauz ona izateko aífunka geyegi dabilek. Exkoteko kalan abiñenian, eta mendabal zakaña ateratzen dueñeán ez dek ofénbeste agertzen buruba.
- Atraka.* —Ik baño geyago.
- Pipax.* —Ederki eman ere.
- Atraka.* Mutil, pipa besterik ez zaik ikusten ta.
- Pipax.* —Lenguan ere, zer ordutan ziñaten *Xuexteko* kalan?
- Atraka.* —Guk ordubata t'erdian belatu genikan, eta bide erdiraño oker oker, *auuu.....* etofi gindukan. Eta bat batian *kalma!* Txapela bete aize naikua etxera etoratzeko, ta, aguantian ler egiten etofi biar!
- Pipax.* —Gu, beñiz, zuek baño nekezago irten aíen, laja zuek atzian, eta efiya bixtatu zenuteneako, bi puntetan gindukan.
- Atraka.* —Ala dek, bai! Nik, alare, zuen txalupa afantzako baporia zala uste nikan, ire pipak botatzen zuen kiakin. Ofelako kaldera izan ezkerro, irabazi biar estropada.
- Pipax.* —Eta beste kalan?
- Atraka.* —Zeñetan?
- Pipax.* —*Baztar-kantinan.*
- Anton.* —Kantinan ez, baña, sagardotegiyan alkar topatzen dute abek.
- Atraka.* —Mutil, ez zakala ori aitatu, baztar guziyak zoñez beitiak daukazkit eta.
- Pipax.* —Ire andriak aña ogi ez diagü bada zor, zuek bezin lotsagabiak ez geralako.
- Atraka.* —Ogiya? Ire amak obe zikan ire tokiyan sei librako ogi aundi bat egin balu.
- Pipax.* —Ona bada emen gizon galanta. Iñon kabituko ote da? Etxe-efenta pagatzeko baño ofetarako obia aiz.
- Atraka.* —Beñiketa gutxi gero emen, e! Bestela emango diat begiñondoko bat.....
- Pipax.* —Gauza izan biar.
- Anton.* —Ez gero emen okasiyorik jañi.
- Atraka.* —Ago ixilik, kintua!
- Pipax.* —I egongo aiz, bobiskum!
- Atraka.* —Katilu, ez besteren katilu!

— 15 —

- Pipax.* —Astua!
- Atraka.* —Babua!
- Pipax.* — I bezelakua!
- Atraka.* — Emango diat!
- (Eskua altxatuta).*
- Pipax.* —Artuko dek!
- (Pipax ek ere eskua altxatzeu du. Orela pixka batian al-kañi asañe begira egongo dira, ta bat batian adizki-detzen dira.)*
- Atraka.* —Edan zاغun baxo bana.
- (Bañikaren ondora juaten dira ta Anñon'ek bi basuak ematen dizkie. Atraka'k artzen ditu, ta lenbizikua Pipax'i ematen dio.)*
- Anton.* Beti bezelako azkena aben efomeriyak: itsasuan asi ta sagardotegiyan bukatu.
- Atraka.* —Anñon: patiña txukun-txukun utziko ukán?
- Anton.* —Bai, zera; lenbiziko bizitzako atsua beñiketa dariyola asi dek, eta ez diat ezer egin; katua ta beste zikiñak bertan gelditu dituk. Iñor etortzen bada goxua ziok.

ZORTZIGAÑEN IRUDIA.

Anñon, Pipax, Atraka, Tanti ta gero Patxi.

(Atraka ta Pipax'ek sagardua edan ondoren konduak atze-ko ate aldera botatzen dituzte. Une onetan Tanti atze-ko atetik sartzen da, ta bustitzen dute.)

- Tanti.* —Bapo! Plei edin natute.
- Pipax.* —Oi, Tanti! Zer egin ditek?
- Atraka.* —Txantxetan ukán.
- (Atraka'k bere baso utsa Anñon'i ematen dio. Ondoren Pipax'ena artu ta berdin egiten du.)*
- Pipax.* — Multa eman akiyok.....
- Anton.* —Neri?
- Tanti.* — Bat eo bati bialko. Ez takizute zer pata taitan.
- Pipax.* —Zer bada?
- Tanti.* —Badakik, Ataka: len itan naitenian, nola eletiolia ikutita, kolika atela naiten, e?
- Atraka.* —Bai; emengo sagardo jibia.

— 16 —


- Anton.* —Emen izan dek.
- Tanti.* —Alen idesi ateaten nak, eta bete ikiñan kabua ala-
tañetan.
- Atraka.* —Orduan *talto* egin biar ukana.
- Tanti.* —Deitu, ta daldetu ziat: “Zer tabiltza tadaldote-
gian?” Nik ter esan tatin ez, eta patiña ikusten
nitala esan tiuat, eta.... tikiña daola.
- Anton.* —Gezufa!
- Pipax.* —An̄ton, txautu au.
- Anton.* —Zikiñago daukak ik muturá.
- Pipax.* —Ikusi zak.
- (Tanti patiñara juaten asten da. An̄ton eta Atraka'k ez
diote uzten.)*
- Atraka.* —Eta, guazen..... kabuak zer esan dik?
- Tanti.* —Bi peteta multa emateko; ta ona papeleta. Ia oain
bi petetak teñek ematen dikian.
- Anton.* —Nik ez peñipin.
- Tanti.* —Bialko.
- (Tanti beñiro patiñara juan nairik asten da. An̄ton eta
Atraka'k geldituz arazitzen dute.)*
- Anton.* —Ez txinistu!
- Atraka.* —Pipax'ek emango dizkik.
- Pipax.* —Ba bai; ankak erantzi ta beriala emango dizkiat.
Zertan nai dituk, uŕetan edo zilaŕetan?
- Tanti.* —Beliketa gutxi. Bat edo batek eman bialko titiak.
- Pipax.* —Muitil, papela *kanbiyatze*ko esaten nikau.
- Tanti.* —Papelik *tanbiyatu* gabe fumatzen diat nik.
- Pipax.* —*(Pipa erakutsiaz.)*
- Nik beñiz, paperik gabe.
- Tanti.* —Enak ni emendik juango bi petetik bae; ta ba ezpale
patiña ikutea niak.
- (Tanti k irugañen aldiz patin aldera egiten du. An̄ton eta
Atraka'k geldi arazitzen dute.)*
- Anton.* —Ez dek ikusiko; ik gezuŕa esana ez diat nik kulpik.
- Atraka.* —Garbiya ziok.
- Pipax.* —Utzi zayozute.
- Tanti.* —Utzi bialko!
- Atraka.* —Zertara juan biar dek, garbiya ziok eta.
- Tanti.* —Oli etekiak.
- Anton.* —Zertarako esan diyok bada zikiña dagola?

— 17 —

- Tanti.* —Betela etikan tinixten ta. Tia, tia, ikustea niak.
- Anton.* —Anjela Maria! Ez dek ordia ori kontua.
- Pipax.* —Zer da bada, kantua?
- Atraka.* —Ez, katua.....
- Anton.* (*Atrakari abua tapatuaz.*)
- Ago ixilik!
- Atraka.* —Ez uala; orain garbitu dik.
- Tanti.* —Ez al diatute utzi nai?
- Anton.* —Garbiya dagola. Ez al dek aitzen?
- Tanti.* —Na ez paefute uti, eon; baña, enak ni juango bi petetik bae.
- Anton.* —Nai duenak emango dizkik, nik ez.
- Atraka.* —Gauz oñetzaz itzegingo diagu.
- Pipax.* —Mutil; utzi zak kontu ori..... Naigabia pasatzeko edan zak baso bat; nik iri laguntziagatik beste bat ustuko diat.
- Atraka.* —Guazen.
- Tanti.* —Ekatzak bada bato bat; baña pagatu bialko dek.
- Anton.* —Ez txinixtu.
- (An̄ton'ek iru baso banaka Atraka'ri ematen dizkio. Onek artu bezela, lenengo biyak Tanti'ri ematen dizkio; ta onek lenbizikoa Pipax'i.)
- Pipax.* —Sagardo au oso osasuntsua dek.
- Atraka.* —Sagardo eririk ikusi al dek?
- Pipax.* —Sainetian ezagutzen dek.
- (Edaten dute, ta konduak bota ondoren Pipax'ek Tanti'ri, onek Atraka'ri, ta onek An̄ton'i, artu bezela basuak ematen dizkie)
- Anton.* —Onek egin digu ateraldiya.
- Atraka.* —Safera, safera egin dik onek.
- Tanti.* —Nik pagatuko itutala uste al dek ba?
- Anton.* —Nork bada?
- Pipax.* —Utzi zayozute tontokeri ofi. Nik emango dizkiat. To...
(*Sakeletan begiratuaz.*)
- Ez diat emen. Astegunetako eñopetan utzi dizkiat.
- Atraka.* —Jayetakuak al dituk oyek?
- Pipax.* —Intzentzu egunetakuak.
- (An̄ton altxa, ta labak iruditegi aurian biltzen dira.)
- Anton.* —Kanpana bueltakuak jotzen dituztenetakuak?
- Pipax.* —Bai.

- 18 -

(Patxi mutil koxkor bat da, ta txixtuka ta bonbila txanpon batekin juuz atzeko atian azaltzen da.)



— 19 —

- Pipax.* —Baita oñetara ere, egingo diat.
- Tanti.* —Etali txafa zeukat oldia..
- Anton.* —Ófenbesteañoko kantuak egin bear al dituk?
- Atraka.* —Órengatik asi zintezteke, bai. Tira, tira, **asi**.
- Pipax.* —Ni asiko nak.
- Anton.* —Geran bada.
- Pipax.* (*Abestuaz.*)
- Tanti zera zu gizon bikaña
Bi peseta eskatzeko,
Baña, izan du Anton'ek maña
Zuri gaur ez..... iñondik iñola
ere patiña zikiña zeguelako
eskatu dizkatzun diruak
pagatutzeko.
- Irurak.* (*Párez.*)
- Ja! ja! ja!
- Anton.* —Non zuen oñek azkeneko eñematio!
- Tanti.* —Oli daizki!
- Tanti.* —Ja! ja! Asnas batian kantatzeko naikua egin dik.
- Pipax.* —Orain, Tanti'ren txanda.
- Atraka.* —Ia, nola egiten dekan.
- Tanti.* —Neli ez zaat batalitalak betela dustatzen.
- Anton.* —Dakikan bezela bota zak.
- Pipax.* —Geran, geran, oztu baño len.
- Atraka.* —Ala!
- Tanti.* (*Bi estultxo egin eta pixka bat itxogon ondoren, abestu-tzen asten da.*)
- Dure etxian baziot
Matinabat tate
Matinabat titel
titel, titel, ti-tel, ti-tel.

BEDERATZIGAÑEN IRUDIA.

Lenguak eta On Jeolimo.

(*On Jeolimo atzoko ateak azaltzen da, ta laubak párez alde batian, eta Patxi kanílatik sagardua edaten arkitzen ditu. Bereala Patxi'ri erazotzen diyo.*)

On Jeolimo —Zer da modu au! A, likixkeriya ez besterena!

Tanti. —Eletiolia!

Anton. —Nagusiya!

Pipax. —On Jeolimo!

On Jeolimo. (*Patxi eskumakilarekin juaz.*)

—Emango diat nik orain!

Patxi. (*Bonbiña artu la negaŕez igesi.*)

—Ai ama! Ez det geyago egingo!

(*Atzeko atetik juaten da.*)

Tanti. (*Pipax'i.*)

—Bi peteta multa.

Anton. —Ai! Au tratua!!

(*On Jeolimo Anŕon'i alderatzen zayo.*)

On Jeolimo —Au al da modua?

Pipax. (*Tanti'ri.*)

—Neri zer esaten diak?

Tanti. (*Batera ta bestera dabiñela uste gabean On Jeolimo'ri.*)

—Bi peteta multa.

On Jeolimo. —E?

Tanti. —Ai, ez! Barkatu. Oni.

(*Anŕon'i.*)

Bi peteta multa.

Anton. —Ua ortikan.

Tanti. (*Atraka'ri.*)

—Bi peteta multa.

Atraka. —E?

Tanti. —Patiña tikiña. Bi peteta multa.

On Jeolimo —Ofela, uste al dezu, konponduko gerala?

Anton. —Esango diyot, jauna.....

(*Era onetan gelditzen dira: Atraka la Tanti, eriyetan eskuyean; On Jeolimo la Anŕon erdiyan; eta Pipax, bakaŕik, ezkeŕean*)

Pipax. —Orain ere, beliarena egin biarko. Kai puntara guazen bost efial irabazterea.

(*Atzeko atetik juaten da.*)

Anton. (*Pipax dijuala ikustean.*)

—E! Pagatu gabe igesi dijua.

Tanti. —Oli bai, oli!

(*Pipax'en ondoren atzetik juaten da.*)

—Bi peteta multa.

— 21 —

Anton. Ori ere bai.*(Atraka'k ere bestiak bezela egiten du, baña atean geldi arazitzen dute.)*

— Ez dek iges egingo, ez!

On Jeolimo Geldi emen!*(Eskumakila altxatuaz.)**Anton.* Jaunak: ni ez nijuan iges egitera; nik neria pagatuko det. Ez naiz ni ofelakua.

AZKENEKO IRUDIA.

An̄ton, Atraka ta On Jeolimo.

*(Irurak auferatzēn dira.)**On Jeolimo**(Atraka'gatik An̄ton'i.)*

— Onek zenbat zor dizu?

Anton.

— Onek.....

Atraka.

— Nik baso bat.

Anton.

— Besterik, ez?

On Jeolimo — Gizona, ori al da modua? Danen artian karga erdi-en bat edan dute; ayek igesi pagatu gabe, onek, ige-si ez egin afen, berdintxu pagatzen du; ta ofela kontuak juxtu ateratzia nai dezu?*Atraka.* — Nik baso bat besterik ez det edan.*On Jeolimo* — Atoz gero, upela ez dala ogeita ta amar kargakua, ta zintakin ez dala ondo neurtzen..... ta esatera.....*Anton.*

— Zer nai du bada? Gauz abek alegiñak egin afen gertatzen dira.

On Jeolimo — Nik ez det ofekin egitekorik, nik sagarduen diru juxtua biar det.*Anton.*

— Gu nola bizitzia nai du?

On Jeolimo — Lana eginda.*Anton.*

— Egiten degu, jauna.

*On Jeolimo.**(Aldi txiki bat oldozten egon ondoren.)*— Begira, An̄ton: ni zutzaz eŕukitzen naiz. Ezagutzen det, alde batetik, irabazi txikiya dagola, ta bestetik, alegiñak egin afen, *pegatzen* dizutela; bañan, alabain-dikan ere, nik neretik ezin emango dizut. Orain, ordia, biyak ondo aterako geran modu bat asmatu det.*Anton.*

— Ia. bada.

-- 22 --

On Jeolimo - Baso bat txixkatzen dizutenian, baso bat ur bota; bi egiten dizutenian, bi bota, ta ófela, zenbat sagardo txixkatu, ainbeste ur bota. Era onetan zuk ez dezu galduko, ta nik ere ez.

Atraka. —Guk bai ordia.

On Jeolimo —Nik nere baimena ematen dizut.

Anton. —Bai; beofek ematen dit; bañan, naiko al dute jaun oyek?

On Jeolimo —Ori.....

Anton. *(Jendiari.)*

—Jaunak; ura botatzeko, beon baimena ematen al di-date?

Atraka. —Ez! Ez!! Ez!!! Ez txinixtu!!!

Anton. —Nik besterik, ezin egin nezake bada,

(Jendiari.)

Urik nai ez badute
sagarduarekin
konpondu litezke
nagusiyarekin.

On Jeolimo —Sagardotxu ontatik
emango det anbat
pagatutzen badute
txikiko..... txalo bat.

Atraka. —Asten badira, jaunak,
txalo ematera
orduan bai egiyaz:

Irurak. —ATERAKO GERA!

EZKUTAZAPIA JEXTEN DA.

A M A Y A .

ANTZERTI

EUSKEL-ANTZERTIAREN ILEOKOA



“LAÑO” TA “IZAR”

LIZARDI'TAR XABIER



“MAYA” -- Ayanbe'tar L.



“GUZIK GAXO”

Erderatik antolatutako bakařizketa

2'en ta 3'en Zenbakia

1932—Otsaila-Epaila

ILEKO BERIAK.

Erusitarak gure artean.

Norbait beldurtuko da idazpurua irakufitakoan. Ez ikaratu, irakurle. Ez dira boltxebiki ala komunista gofiak etofi zaizkigunak; Mosku'n aldi batean, ta orain Praga'n dauden antzelari-taldea baizik.

E fusitar "lagundi" ori, Barcelona ta Madrid'en izanez geroz, Donostia'ko Kursal'en lau antzezkizun eman ditu efusieraz noski. Ikusleak adi zezaten gu're "Beorlegi" euskel-antzeslari bikañak, itzaufe, aintzin-solas bezela, erderaz azalpenak irakuri ditu.

Ostrowski ta Gorki'ren antzerkiak agertu dizkigute. Ostrowski'ren "Txirotasuna ez da era" ikusten izan gifian ta benetan antzelari-talde ezin-obea iruditu zitzagun. Bakoitzak ta guztiok osora zeatz ta bikain lan egiten dute.

Mintzatzen, ibiltzen ta egoten ba-dakite, batak ta besteak, antzerkiari ariagafizko egiantza emanaz.

Ontan zer ikasia euskel-antzelariak ba-dute, ta ez dala alpefik izango efusitafen iker-taldia derizkiot.

Bestela, antzerti tankeraz ta mamiz gauza befirik ez digute azaldu alegia Tairoff ta Soviet'eren ikastolarenik. Ufena bearko.

PARADA'ren beste antzerki berri bat.

Parada'tar Isidor idazle eza-unak Biar ta Etxabe'rekin Bilbao'n Antzerti euskotar ta aberkoiar eutsi diona, antzerki berri bat idatzi du "Ortzetik jausita", eusker-aerderera erabiliaz.

"Sabin-Etxia'ko" antzelari taldeak lenengoz agertu zun Deun Joseba egunez Bilbao'ko "Campos Eliseos" antzokian.

"Euzkadi" egunkariak dionez, antzerki oni, ikusle-entzuleak afera ona egin zioten, egile ta antzelariak txalo ta zorion agur asko jasorik.

Gureak, ez epelagoak, bijoazkie.

PEDRO MARI.

Izen au dun antzerki-itun ta aberkoia Bilbao'ko "Euzko Gaztedi"-koak bein eta beñiz azaldu digute bertako "Campos Eliseos" antzokian.

Beti bezela giza-taldeak atseginez ta otzikaraz ikusi ditu "Pedro Mari"ren gertakizunak ta zorigaiztoko erioa...

Alabañan, Euzko Gaztedi'ko antzelari-aldra'ren zuzendariai oar batzuk egin nai geniezke.

Euskeria geiago ezin sartu al dezakete "Pedro Mari"n?

Guk uste degu nai ta naiezkoa dala zenbait ageŕaldi, euskeraz ipintzea.

Batez ere lenengo ekitaldiko agefaldiak; bigaŕen ekitaldiko Anita ta Pedro Mari'ren alkar izketak; ta baita ere irugaren ekitaldian, laburditar anaiekin biltzen dan uneko agefaldiak euskeraz ba-lira, askoz obeto belearira ta egiantzera (verosimilitud) letorzkela gaude.

Onela izateko eragozpenak ba-dirala ba-dakigu; alaz guztiaz, era ontan "*Pedro Mari*" antzerkiak anitz irabaziko luke; ta euskeraz gutxi ala batere ez dakitenentzat, gaia ezaguturik ez litzake ain ulergaitza izango.

Gure iritzia ori da beintzat
Aztertzale.

Euskel Teatroa Ustaritz'en

Berandu bederik, ez degu ai-patu gabe utzi nai, Ustaritz'en, Laburdi'ko Kapitoariaren efian, Egubeŕi egunez ospatu zan antzerki jaia. Bertan, "*Oltzabefian*" deritzan antzerki "misterio" ala eskutapena dalakoa antzestu zuten.

"*Oltzabefian*" Blazy ta Hiriart J. jaunak sortua da ta euskeraz Elissalde "*euskeltzaiñak*" itzuli du.

Ustaritz'eko andereñoak aŕas ongi ta egoki beren arloak betetzen azaldu omen ziran.

Jo bide ortatik laburditaŕak

ta batez ere Blazy, Elissalde, Hiriart ta Garmendia jaunak. Emen dago "*Antzerti*" zuei laguntzeko.

Antzertia'ren bide beriak.

Antzertia beste ertiak bezelaxe erabefitzen joan oi da, ta auferapenak bilatzen, befitzaleok beti-beti ez ba'dute asmatzen ere.

Gaur Paris aldetik datorkigun era bebia aztertu zugun, arin bederik.

Iru talde "befizale" edo ezagutzen ditugu: "*L' Atelier*" "*Les Quince*" ta "*Arlequin*". Irurak "efecto" aundienak atera nai dituzte alik eta antzeslari gutxi ta bide efezenetatik.

"Atelier" taldekoak egiten duten "*Tzar Lenine*" ikustekoa omen da. Lenengo ekitaldian iru bat lau antzezlarri ta zenbait txotxongilokin zapi beltzean, ondorengo izugarriak sortzen omen dituzte.

Beste oŕenbeste, "*Les Quince*" taldeak antzeztutzen dun "*Bataille de la Marne*" rengatik, esan diteke.

Alemani'ko gudaroztea "gudari" bakar batez azaltzen dute, bañan Bach'eren "*korala*" entzuten da gramolan joa, gañera-ko guzia adierazten duna. One-la eratua dago antzerki ori ta ikusgarri ta edeŕa dala orok aitortzen dute.

ILEKO BERIAK

Noiz sortu bear degu Euskal-
Errian gure antzertia'ri aufera-
pena emango dion antzeslari-
-talde gazte ta ausarta befi bat?

NIK.

“Maitasunak” Victoria
Eugenia'n eta Añiaga'n.

Ez ditugu nolanaiko maitasunak aitatuko, Bafiola'ren “Maitasunak” baizik. Antzerki au, izenez Porto Riche'ren “Amoureuse” gogora ba-dakarkigu oso bestelako da. Orain amar bat urte idatzi zun Bafiola'k; orduko Donostia'ko “Antzoki zañean” lenengoz antzeztua izanik. Il onen, Epailaren 19'an, Joseba Deunaren egunez befiro

antzestu dute *Euzko-Etxeko*
taldeak “Victoria Eugenia”
antzoki edelean.

Ta talde berak beste antzez-
kizuna Bilbao'ko “Añiaga” ant-
zoki bikañean eman du Berbiz-
kunde eguneko Abefi-jaiak zira-
la-ta.

Beraz “Maitasunak” Euzka-
di'ko bi antzoki apain ta aundie-
netan antzeztu dira, areto biak
bete-beterik zeudela, ta ikus-
leen txalo-jotze sutsuen artean.

Gañantzi aundiko gertakaria
da au gure antzertiarentzat ta
oñegatik zorionik gartsuenak
Bafiola jauna, Euzko-Etxea'ko
taldea ta jaien eratzaleai bidal-
tzen dizkiegu.

Zale.

"LAÑO" TA "IZAR"

LIZARDI'TAR XABIER.

(PRÓLOGO)

(Recítelo una muchacha, cuando el público no sea completamente euskeldun.)

Señoras y señores... O bien: *Jaunak eta andreak*, como se dice en vasco, poniendo primero a los hombres, que son lo más importante del mundo, mal que a nosotras nos pese...

Señoras y señores... *Jaunak eta andreak*: ¿me dejaréis que os cuente un cuento?... ¿Sí?... Pues, escuchad.

Una tarde de jueves jugaban niños y niñas en el campo. Y no se hartaron de jugar hasta que anocheció. Entonces floreció en el cielo la hermosa luz azul de la estrella Venus—*Artizaña*—y bajo ella se veía una nubecilla, arrebolada aún por los últimos rayos de sol.

La chiquillería admiró aquel espectáculo, y, cantando un viejo aire vasco, se decía: “¡Quién pudiera subir al cielo y cojer esa estrella! ¡Y envolverla luego en esa nube tan bonita!... Pero, qué le vamos a hacer... Cuando *artizaña* aparece en el cielo, aquí abajo se convierten en estrellitas las luciérnagas, los *ipurtargis*... Cojamos, pues, *ipurtargis*, ya que no podemos alcanzar las estrellas de verdad...”

Pero un hada, amiga antigua del pueblo vasco, había escuchado conmovida la canción, y se presentó a los niños. Y díjoles que les iba a contar la historia de la estrella y la nube, de *Izar eta Laño*.

Izar y *Laño* eran dos hermanitos, chico y chica. Eran como dos pequeños trovadores que cantaban a todas las puertas bellas canciones vascas, recibiendo en pago dádivas sabrosas.

Y hé aquí que un día llegaron a un hermoso palacio. A cantar, como siempre. Pero les detuvieron. La dueña del palacio, una reina hermosa, estaba enferma, muy enferma, porque la mala voluntad de un su enemigo la tenía embrujada.

Entonces, *Laño* e *Izar* van donde su amiga el hada: la misma que miles de años después ha de contar a los niños de hoy este cuento, y ha de contarlo en *euskera*, porque nunca aprendió otra lengua.

Y el hada les dice: "La reina puede sanar, pero hay un solo medio: hacerle sorber la hiel del dragón terrible de *Lezebeltz*."

Laño—¡animoso *mutiko!*—se apresta a ello. Toma un hacha de plata, de manos del hada, y se encamina a *Lezebeltz*, que es una negra cueva. Le acompaña su hermanita, que también es muy decidida... Por ocultas veredas sigueles el hada, con muchas otras amigas de igual condición.

El combate es tremendo. Pero *Laño* vence. Al llegar a este punto del cuento, es probable que los chiquillos se entusiasmen y se pongan a danzar de puro gusto. Mas, muy pronto, un rumor fúnebre los detendrá. Y sabrán que *Laño* ha muerto también, desangrado por los horribles zarpazos que le dió el dragón.

Y entonces vendrán las otras hadas (¡ya vereis qué guapas!) trayendo el cuerpo del pobre chico, seguido de la hermana inconsolable. Y lo cubrirán de flores.

Y el hada mayor concluirá su cuento, diciendo: "¿Sabéis que fué de *Laño* y de *Izar*?" Pues, como ésta no le quitaba los brazos del cuello, con objeto de que no se separasen los elevamos al cielo, y al chico lo convertimos en nube arrebolada (*laño*) y a la niña en brillante estrella (*izar*). Y ahí los teneis desde entonces decorando nuestros más bellos crepúsculos.

Pero luego el hada dirá algo de mayor sustancia. Se dirigirá al público, a vosotros, señoras y señores, *jaunak eta andreak*, y os dirá: "La noche viene: el fulgor de la nube y de la estrella va apagándose. En nuestros montes ya no resuenan tan bellas como antaño las canciones de la Patria. Pero... vuélvanse estrellitas los *ipurtargis* que estos niños han cogido, y nuestra noche será estrellada, claro heraldo de un amanecer radiante. Euskaldunes: sedlo cada vez más, y Dios esté con vosotros."

Esta es la pequeña leyenda que vais a ver escenificada.

Bueno...; pero ¿no me aplaudís?



“LAÑO” TA “IZAR”

(IPUI ANTZEZGARÍA)

I.

ANTZEZTOKIA: Landa. Ilun-nabar.

*LENENGO IKUSGAIA (linterna-plaka): ortzian
izar eder bat, azpian odoi gorizta duala.*

IPURTARGIAK: or-emenka, inguruko sasi-lafetan.

*NEXKA-MUTIKO TALDEA: zapia jasotzerakoan,
margo-izpi aulez erdi-argitutu ta nabarmenduak,
zorlzi bat nexka ta beste ainbeste mutiko, artxai ta
artxai-andre jantzian.*

*ORKESTAZ TA ABESTIZ: zapia jasotzeaz bat
orkestak laguntzen diela ekin bekiote nexka-muti-
koek “Artizaña zeruan” abesten:*

*Nexka-mutiko taldeak.—Artizaña zeruan
agertzen danean,
ipurtargia ere
izar da lufeán.*

O, zein eder, goikoa
ba'gendu mendeán:
odei gorizta ortan
bil genezakean!...!
Ipurtargia arzagun, (Bi aldiz.)
besterik ezean.

ORKESTA UTSAK jarai bezakio.

*DANTZA-ANTXEAN urbildu bitez nexka-mutikoak
inguru-sastetara.*

*IPURTARGIAK ATZITUZ betoz beriro erdira, ere-
siaren ariora argiok darabilzkitelarik.*

II.

ORTOTS LARIA (acordes-trueno), orkestak.

*ARGITU BEDI ANTZEZTOKIA; tximistaz bezela,
bat-bateko.*

*MAITAGARI BAT agertu bedi, atzetik, bekokian
izar urdiña duala. Betor aufera, txikiiek, agurka,
bide-egiñaz, esku-argiak luzatzen dizkiotela.*

*Maitagariak.—Gabon, maiteok. Zuen ots gozo ofek erakari nau.
basotik. Arigaña! Gaur dan egunean, euskal-kanta*

— 4 —

zaafik dakiten umeak!... Nortzu zaituet, ba, aingeru eder oiek?

Mutiko batek.—(Aldamenekoa ukalondoaz jotzen dula.)—Esaiok ik.

Beste mutiko batek.—(Lengoari.)—I ni baño audiagoa aiz!

Nexka batek.—(Aldamenekoari.)—Au ez den eñikoa...

Beste nexka batek.—Enee, ez! Olako andre apañik!...

Maitagañiak.—Etzerate ausartzen? Ez bildur izan. Maitagañi bat nazue: eztizuet ezer txañik egingo... Ia! Ik, txikien orek, esango diak: nortzu zerate?

Guziek. . . .—(Pare-puñustaka.)—Eneee!... Potolooo!!...

Potolo'k . . .—Uñats bat auñera.)—Andrea: euskaldun jatoñen auñak gaituzu. Argatik dakigu euzkeraz; argatik ere, euskal-kanta eder-askoak...

Maitagañiak.—Ederki, Potolo maxail-goñi! Txalo Potolo'ri, ta txalo bere lagunei!... Baña orain, esadazute: abesti zaar gozo oiek nork asmatuak diran ba'aldakizue?

Nexka batek.—Gure eñiko Mantoni zaañak, andrea!

(Mutilek, par-algara aundiagoa)

Mutiko batek.—Tuntuna alena!... Ez, andrea, ez: Elizako organista jaunak!

(Nexkaen pare-algara aundiagoa.)

Maitagañiak.—Ez dezute asmatu: ez nexkaak eta ez mutilok. Ik bai-ote-dakik, Potolo, ain jakintsu aizen ofek?

Potolo'k . . .—(Buruari azka, lotsatu-askirik).—Nik,... egia esan,... ofenbeste ez dakit, andrea...

Maitagañiak.—Ez?... Exeri, ba, guziok, eta nik esango dizuet ipui bat..., ederagoa!

(Txiki guzik exeri bitez luñean.)

Ikusten al-dituzue zeruan izar eder ura, ta, beeñan, laño gofixta bat?... Oietxen ipuia esan nai dizuet, ba: “Laño” ta “Izar”-eh ipuia, alegia.

Bein bai-omen-ziran, orain milaka urte, zuek bezelakoxe anai-afebatxo bi... Gau ta egun mendirik-mendi zebiltzan. Ara! bertan agertu...

BIGAKEN ARGIA-IRUDIA (L'interna): “Laño” ta “Izar” mendiz-mendi.

Nexka-mutikoeik.—Ooooiii!!.... (Esku-argiak ikusgaiari zuzenduz.)

Maitagañiak.—Mutikoak “Laño” zun izena: nexkaak, “Izar”. Atariz-atari—naiz baseñi, naiz toñe-etxe—alkafekin

— 5 —

kantatzea zuten bizimodua. Amaika sagar eder, amaika lukainka gofi, ta txeriki gozo, ta olanda zu-ri, ta gazta guri... sartzen zituen aiek zofo aundi batean!

(Nexka-mutikoei begiak biribiltzen zazkie.)

Bañan...

ORKESTAK, ukaldi labur bat (acorde preliminar.)

... entzun, entzun, “Laño” ta “Izar” kantari.

“NIK BADUT MAITEÑO BAT” uŕutian, bik abestua, beetik ORKESTAK laguntzen diela.

BIGAÑEAN, NEXKA-MUTIKO GUZIEK abestu bezate, abestiaren ariora esku-argiak darabizkitelarik.

IXILUNEA. Beñiro guziak maitagariaren gana adi.

Beñola... jauregi eder batean ateetara ziralarik...

IRUGAÑEN ARGIA-IRUDIA (Laintera): Jauregi-aufean.

Nexka-mutikoek.—Oooiii!! (*Leen bezela*).

Maitagariak.—Bertan eñegin gazte eder bat gaixorik zegoala jakin zuten... Oso gaixorik eze, etsai zital batek begizkoa egiñik baitzegoan.

Ordun – adiskide baininduten – badatozkit basora galdezka, ia eñegiña iñola sendatu al-ziteken... Nik, baietz: baña, artarako, “Lezebeltz”eko dragoi izugafia...

Potolo’k . . .—(*Lu’etik jaikiaz*)—Andrea: Gure aitak “irantsugea” esaten du, ta ez “dragoia”...

Nexka-mutikoek.—Txissst!!!!...

Maitagariak.—(*Pafe-algaraz*).—Bai?... Ondo zeok, Potolo... “Irantsuge” esan zagun ba... Izan ere, oraingo umeok badakizute gauzez!

Lezebeltz’eko irantsugea, ba, il bear zutela esan nien: ta aren beazuna eñegiñari jan-arazi.

“Laño’k” bereala, baietz: berak ilko zuala!

LAUGAÑEN ARGIA-IRUDIA (Laintera): Zilañezko aizkorez.

Eman diot, bada, zilañezko aizkora zoñotz bat, eta an abiatu dezute bildur aundirik gabe, Lezebeltz’erako bidean bafena, “Izar” lagun zuala.

Ni ta beste maitagari asko, aiek oartu gabe, atzettik jañaika ginjoazkien.

— 6 —

Ontan, eldu gera Lezebeltz'era.

BOSGAREN ARGIA-IRUDIA: Lezebeltz.

Nexka-mutikoek.—Oooiii!!... (*Leenetan bezela.*)

Maitagañiak.—Dragoia... (ai! “irantsugea... Barkatu, Potolo) esnatu-beña zan. Irten digu bidera... Ai, ai, ene! Anglo iskanbiña laña, ango buñuka gaitza!! Gogoratu utsak zoratu-arazi bear nauela uste!...

ERESI NAASI ANTZEZKORA jo lezake orkestak, azpitik, maitagañiak liskatua edestu-bitarteau.
TXIKIAK URDURI ta qero ta adiago.

Sartu zaio arin “Laño”... Jo irantsugea aizkoraz, ta jas! laña lakañean irista... Altxa da erdika pizti zital ura, sabel nardagañi gañean, ta...—Jainkoa bezak lagun, maite!—erpe zoñtzaz atzitu dio iztaña, ta goitik beera uñatu... Baña, mutilarri... bost ajola!... Amoñu aundiagoz an dijoakio beñiro... Zanko giafen gañean luzatu du gorpuztxoa, luzatu, luzaatu!... Gorputz-gañetik, besoak goitu ditu, aizkorari itsatsita... Ta, alako batean..., dzast! aizeari txistu era-giten ziola, oña amildu bat-batean aizkora, irantsugeari kaska-ezuña autsi, ta zilaña lurpean ezkutatu arteraño!

SEIGAREN ARGIA-IRUDIA: “Laño” garañe.

Ta, oña non dezuten irantsugea burutik luñari jositu, izatz kozkorduna azken-lañiez astintzen!

Nexka-mutikoek.—(*Poz aundiaz luñetik jeikiaz*).—Gora “Laño”!
Gora, gora, goraaa!...

EZPATA-DANTZA mutilek, erdian, nexkaak inguru, esku-argiak goruntz, ditutela

INGURUTXOA, bereala, guziek elkarrekin.

ORKESTAK lagundututa.

BAT-BATEAN, ORKESTAK ostots bat.

ZAZPIGAREN ARGIA-IRUDIA: “Laño’ ilda, “Izar” negaÑez.

TXIKIAK GELDI

IL-ERESI LABURA. (l-eresi ori egin diteke, “Nik badut maiteño bat’en bigañen zatia zerbait ukitu ta “tono menor” dalakora biurtuz.)

Maitagariak.—Negar..., negar..., negar!!!... Negar egizute, nere txikiok! Il baita “Laño”..., il baita!!..., il!!! zauri izugañi artatik odolez uztuta!...

TXIKIEN ITUNA ta negaÑa.